

## EUSKALTEL TALDEAREN KALITATE- ETA INGURUMEN-POLITIKA

Euskaltel Taldeak telekomunikazio-talde gisa egiten du lan, eta interesa duten alderdi guztiak gogobetetzeko eta haien ahalik eta balio handiena sortzeko zerbitzuak eskaintzen ditu, betiere garapen jasangarria eta ingurumena zaintzea eta babestea oinarri hartuta.

Euskaltel Taldeak bere kudeaketa-sistemaren arabera definitzen du bere kalitate- eta ingurumen-politika, gizartearekin eta ingurunearekin konprometitutako enpresa bat dela kontuan harturik.

Politika horren bidez, gure produktuak, zerbitzuak, lan egiteko erak eta kudeaketa-sistema etengabe hobetzeko konpromisoa gureganatzen dugu, alor guztietan hobeto jarduteko. Konpromiso hauek bereganatzen ditu Euskaltel Taldeak:

- Aplikatu beharreko legedia, araudia eta gainerako baldintzak betetzea, bai eta kudeaketa-sisteman hartzen ditugun beste zenbait konpromiso ere.
- Merkatuarengandik eta gainerako interes-taldeengandik hurbil egoteko eta haiei etengabe entzuteko jarrera izatea, haien nahiak eta beharrak ahal den era aberasgarriean asetzeko proposamenak identifikatzeko eta egiteko.
- Ingurumena babestea, klima-aldaketari aurre egitea eta poluzioa prebenitzea, bai eta konpainiaren jardueren ingurumen-inpaktua murrizteko politikak martxan jartzea ere.
- Ingurumen-alderdiak eta jardunbide egokiak kontuan hartzea negozioaren erabakietan eta prozesuetan, baliabideen erabilera arduratsua sustatzea eta taldearen printzipioak balio-kate osora zabaltzea.
- Garapen jasangarria oinarri duen kudeaketa-sistema bat hedatzea, ekonomia-, ingurumen- eta gizarte-alderdiak aintzat hartuko dituen.
- Gure jarduerak enpresan ezarritako balioekin bat etortzea.
- Politika honekin bat datozen helburuak ezartzea hala dagokien alor guztietan, eta helburu horiek aldizka berrikustea eta egokitzea.
- Barnean berrikuntzari bultzada ematea merkatuan eta une bakoitzean egokienak diren teknologiak erabiltzea, gure xedea betetzeko.
- Kalitatearekin, bezeroaren gogobetetzearekin eta ingurumenarekin lotutako trebakuntza ematea eta sentsibilizazio-lana egitea langileekin.

Politika hori gure jarduera, produktu eta zerbitzu guztiei aplikatu behar zaie, gure lantoki guztietan. Halaber, erakunde guztiari jakinarazi behar zaio, baita akziodunei, alderdi interesdunei eta, oro har, jendeari ere, eta berrikusi egin behar da, aldizka, Euskaltelentzat egokia dela egiaztatzeko.



**José Miguel García Fernández jauna**  
*Kontseilari delegatua*